

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**DIPUTATU NAGUSIA**

Diputatu Nagusiaren 1/2012 FORU DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, Diputatu Nagusiaren Kabineteko diru laguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa arautzen duena

2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen du; foru dekretu horren esparruan eta 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, ezarritakoaren barruan, Diputatu Nagusiaren Kabineteko diru laguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa arautu zen 2011ko urtarrilaren 28ko Diputatu Nagusiaren 1/2011 Foru Dekretuaren bidez.

Diputatu Nagusiaren 1/2011 Foru Dekretu horrek obligazio hori ezartzen eta arautzen du Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sartzen diren Diputatu Nagusiaren Kabinetearen diru laguntzetan, eta dagokion laguntza programaren oinarri arautzaileetan hala aurreikusita badago enpresa eta entitateentzat.

Diputatu Nagusiaren 1/2011 Foru Dekretu horren 1. artikuluan ezartzen zen diru laguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egitera behartuta zeuden enpresa eta entitateen esparrua, betiere, zegokion laguntza programaren oinarri arautzaileetan hala aurreikusita bazegoen.

Legealdi honetan Diputatu Nagusiaren arloa sendotu egin da egituran zuzendaritza berriak sartuta; zuzendaritza horien jarduerak zehar izaera dutenez Foru Aldundian, Diputatu Nagusiaren 1/2011 Foru Dekretua egokitu egin behar da, Diputatu Nagusiaren arloaren gaur egungo konfigurazioan gerta daitezkeen egoera berriak aurreikusi ditzan.

Hortaz, 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, ezarritakoa garatze aldera, hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua.

Diputatu Nagusiaren 1/2011 Foru Dekretuak enpresei eta entitateei ezarritako obligazioa, udalei, toki erakundeei eta herritar erakundeei zabaltzea -azken hauen kasuan 2010eko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauak ezarritakoaren arabera- diru laguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko. Halaber, obligazio hori zabaltzen da, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak ezarritakoa betez, nortasun juridikorik izan ez arren diru laguntzak emateak eskatzen duen egoeran daudenentzako, hau da, pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, publiko zein pribatuak, ondasun erki-degoak edo beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak, nortasun juridikorik izan ez arren, baldin eta proiektuak, jarduerak edo jokaerak aurrera eramateko gai badira edota diru laguntza emateak eskatzen duen egoeran badaude.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA**DIPUTADO GENERAL**

DECRETO FORAL del Diputado General 1/2012, de 10 de febrero, por el que se regula la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Gabinete del Diputado General.

En el marco del Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, que regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral -dentro del marco establecido por la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos-, mediante Decreto Foral del Diputado General 1/2011, de 28 de enero, se reguló la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Gabinete del Diputado General.

El Decreto Foral del Diputado General 1/2011 establece y regula dicha obligatoriedad para las subvenciones del Gabinete del Diputado General que se incluyan en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa y que así lo prevean expresamente las bases reguladoras del programa de ayudas correspondientes, para empresas y entidades.

El citado Decreto Foral del Diputado General 1/2011 establecía en el artículo 1.º el ámbito de las empresas y entidades obligadas a realizar determinados trámites en los expedientes de subvenciones por medios electrónicos, cuando así se previese expresamente en las bases reguladoras del programa de ayudas de que se tratase.

Habida cuenta que en la actual legislatura el área del Diputado General se ha reforzado al integrarse en su estructura direcciones cuya actuación es de carácter transversal al conjunto de la Diputación Foral, es preciso adaptar el Decreto Foral del Diputado General 1/2011, de modo que contemple las nuevas situaciones que en la actual configuración del área del Diputado General se puedan producir.

Por lo tanto, en desarrollo de lo establecido en el Decreto Foral 23/2010, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral,

DISPONGO

Artículo 1.º

Ampliar la obligatoriedad para realizar determinados trámites en los expedientes de subvenciones por medios electrónicos, que el Decreto Foral del Diputado General 1/2011 establecía para empresas y entidades, a los ayuntamientos, a las entidades locales y a las entidades ciudadanas -según lo dispuesto para estas últimas por la Norma Foral 1/2010, de 8 de julio-. Se amplía, también, la obligatoriedad, en aplicación a lo previsto en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, para el caso de quienes careciendo de personalidad jurídica puedan desarrollar procesos que se encuentren en la situación que motiva la concesión de subvenciones, a las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos o se encuentren en la situación que motive la concesión de subvenciones por parte del Gabinete del Diputado General.

2. artikulua.

Mantentzea aurkezteko eta tramiteak egiteko baldintza orokorrak, eta baita prozedurak ere, aipatutako Diputatu Nagusiaren 1/2011 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Amaierako xedapena.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2012ko otsailaren 10a.—Martin Garitano Larrañaga, diputatu nagusia.

(202)

(1466)

Artículo 2.º

Mantener las condiciones generales para la presentación y la realización de los trámites, así como los procedimientos, de acuerdo a lo establecido en el citado Decreto Foral del Diputado General 1/2011.

Disposición final.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 10 de febrero de 2011.—El diputado general, Martin Garitano Larrañaga.

(202)

(1466)